



alejandro albisua


KIROLETAKO GAIAK

Soraluze, 6 - Tf.: 943 72 52 22 - ZUMARRAGA

TRATAMENDU TERMIKOAK

NIZA

Santa Luzia auzoa
Tel.: 943 72 04 51 - 943 72 09 52 - Faxa: 943 72 43 81
EZKIO-ITXASO



**-estetika
-dietetika
-Produktu biologikoak**

Lanbroa

JAIK ONDO PASA

Bidezahar, 7 - Tel.: 943 72 35 81
20700 Zumarraga


PAPELERIA IDATZI

- Bulegoko altzariak
- Mahaiak ordenagailuetarako
- Bulegoko materiala
- Informatikako kontsumigarriak




- Telenono mugikorra eta finkoa
- Faxeko aparatuak
- Akzesorioak mugikorrentzat

Legazpi, 13 • Tel./ Faxa: 943 72 58 42 • ZUMARRAGA



TXEMA AUTO-ELEKTRIZITATEA

AIRE EGOKITUTAREN KONPONKETA

Jai zoriontsuak!

Urdaneta Aita etorb., 17 behea • Tf.: 943 72 03 17 • ZUMARRAGA

Kultur pizkundea herrian

Gaztelekua eta zinekluba berreskuratu ditu Zumarragak, zenbait urteren ostean

Herriko festak beti izaten dira poztasun iturri. Poz hori handixeagoa izateko beste arrazoirik badute aurren Zumarraga eta Urretxuko herritarrek. Izan ere, jaiegunen bezperetan aspalditxotik itxaroten ari ziren bi albiste pozgarri jaso dituzte. Batetik, ekainaren 22an Gazteleku berriaren irekiera ospatu zuten eta, bestetik, egun bat lehenxeago Zelai Aristiko zinema berrian egin den lehen zineklub saioa amaitu zen.

Gazteleku zaharra desagertu zela —1998ko sanjoanetan bota zuten— lau urte bete direnean zabaldu ditu ateak gazte eta hain gazte ez direnen bilgune, ekimen gune eta amets gune bilakatuko den Gazteleku berriak. Ahalegin eta lan ugari eskatu du langintzak, baita arazoren bat edo beste ere, baina azkenean gauzatu da egitasmoa.

Eraikuntza lanen ardura Zumarraga-Urretxuko Gazte Asanbladak izan du, eta hemendik aurrera ere bere ardura izango da antolaketa eta kudeaketa lana. Gazteleku zaharra kontratupean zegoenez, Urretxuko Udalak diru kopuru bat eman zion Gazte Asanbladari berria egin zezaten. Gazte Asanbladako kidea den eta eraikuntza lanetan buru-belarri aritu den batek adierazi digunez, hasieratik auzolanean jardutea erabaki zuten: «Lau urte hauetan jende askok jarri du bere hondartxo. Garai batzuetan jende dezente aritu da lanean eta beste batzuetan ez horrenbeste. Zenbait epetan ere erabat geldi egon gara, eta azken bi hilabeteak bereziki politak izan dira, jende asko aritu baita lanean, eta, gainera, jende gazte berria sartu da».

Gazteleku berria garai bateko Urolako trenaren Urretxuko geltokian kokaturik dago, eta bi solairu ditu. «Beheko lokalean taberna egongo da. Bertan, autogestioaren bidez, diru

GAZTELEKUA

Zaharra desagertu zela lau urte bete direnean zabaldu ditu ateak
Gazteleku berriak

KOKALEKUA

Gazteleku berria garai bateko Urola trenaren Urretxuko geltokian dago eta bi solairu ditu

ZINEKLUBA

Ekainaren 21ean eskaini zuten lehen ziklo honetako azken filma: 'Lantana'

sarrerak lortu nahi genituzke. Horrez gain aulki pila bat eta mahaiak egongo dira, jendeak esertzeko eta lasai egoteko lekua izan dezan. Gainera, agertoki finko bat ere badago, nahiko handia, lokalaren herena hartzen duena, eta baita komuna ere», adierazi digu urretxuar gatzeak. Bigarren solairua, aldiz, Gazte Asanbladarentzat da. «Materiala, papearak, fakturak, ordenagailu bat... edukitzeko gela bat egongo da. Beste bat tailertxo baten modukoa izango da, eta gela handiena bilerak egiteko gunea izango da. Bertan zinema ikusteko pantaila bat jartzeko asmoa dugu».

Gazteleku berriaren helburu nagusietako bat herriko gazteentzat kultur eskaintza zabaltea da, besteak beste: «Zumarraga eta Urretxun azken lau ur-



Zelai Aristiko zinema aretoa, jendea gainezka.

teotan ez da egon ez kontzerturik ez ekintzarik gazteentzat. 16 eta 30 urte bitartekoentzat ia-ia ez dago ezertxo ere ez. Esaterako, Gazteleku zaharrean hilero, batez beste, 2 edo hiru kontzertu egiten genituen. Hori berreskuratu nahi genuke». Gazte Asanbladako kideak herriko gazteak animatu nahi ditu, duten «edozein ideia edota ekimen aurrera eramateko. Gaztelekuko ateak zabalik dituzte».

Zinema eskaintza berria

Zinemazaleak ere zorionekoak dira Zumarraga eta Urretxun. Lehenik, urte askotako hutsunea betetz, Zelai Aristiko zinema berria ireki zuten eta aurren zinekluba jarri dute martxan. «Zumarragako Udalak, zinekluba eratu nahi zuela eta, deialdia egin zuen, interesaturik zegoen herriko jendea biltzeko. Udalak dirua jarri zuen eta soilik eskatu zuen jendea elkar zedin zinekluba antolatzeko», azaldu digu zineklubeko kide den Miriam Lukik.

Lehen zikloa apirilean jarri behar zen abian, uztaileko amaituta egon zedin. «Horregatik, hasiera batean oso gutxi hitz egin genuen zinemaz; gure ardura pelikula zerrenda erakargarria osatzea izan zen. Udalak askatasuna eman digu filmak lortzeko gestioa nahi bezala egiteko, eta, lehen urtea denez gero, zinema nagusiak berak dituen kontaktuez baliatu gara lehen ziklo honetan».

Ekainaren 21ean eskaini zuten lehen ziklo honetako azken filma; Ray Lawrence zinemagi-